

**B. 16.2.1. Armintxe haitzuloa.
Labar artearen azterketa**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana;
César González Sainz
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

**B.16.2.1. Cueva de Armintxe.
Estudio del arte parietal**

Dirección: Juan Carlos López Quintana;
César González Sainz
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Armintxe Cave has a series of Magdalenian etchings of notable artistic value, and is a new link in the chain of discoveries and the reactivation of studies on Palaeolithic graphic activity which are currently being carried out in the eastern part of the Cantabria region. The cave is located underneath the Lekeitio town centre, and was intentionally covered up during the urban expansion work carried out during the second half of the 20th century. Due to some of the actions taken at that time, the lower and mid levels of Armintxe Cave have been periodically flooded over recent decades, affecting the karstic environment and making exploration and investigation more difficult. In collaboration with the Bizkaia Provincial Council's Historic Heritage Service, an archaeological research project has begun and various actions have been taken to determine the extent to which the karstic system has deteriorated, with a view to redressing the situation.

Lekeitioko hirigunearen azpian dago Armintxe haitzuloa, Arbiatx muinoaren hegoaldeko mazelan, Behe Kretazikoko kareharrizko substratu litologikoan. Gaur egun Larrotegi eta Letraukua auzoak urbanizatzeko lanen harira irekitako bide artifizial batez sar daiteke haitzuloaren barrunbera. Izan ere, BETek Armintxe I gisa katalogatutako (VI-796) (Nolte 1968, 168; GEV 1985, 166)¹⁵³ haitzuloko jatorrizko sarrera berariaz estali zuten XX. mendearen bigarren erdialdean aipatutako urbanizazio lanak burura eramane zituztenean. Ordu hartan bideratutako esku hartze batzuek eragin dute azken hamarraldietan Armintxe haitzuloko beheko eta erdiko mailak aldiro-aldi urpean geratzea, horrek karst ingurunean eragitea eta esplorazioa eta ikerkuntza baldintzatzea.

2016ko maiatzaren 1ean haitzuloa irekitzeko asmoa eta plana aurkeztu zituen ADES Espeleologi Taldeak, haitzulooan sartzea lortu zuen eta grabatuen panel nagusia aurkitu zuen. Esplorazio jardunaldi hartan parte hartu zuten baita AGIRI Arkeologia Elkarteko kide batzuek. Maiatzaren 1ean bertan Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarea Zerbitzuari eman zitzaion aurkikuntzaren berri, eta Lekeitioko Udalak urte hartako ekainaren hasieran itxi zuen haitzuloa (bitarte horretan haitzuloa berriz ere buxatuko zuten sedimentuekin eta ateratako blokeekin). Azkenik, 2016ko ekainaren 11n, labar arte multzo horren kronologia Madeleine aldikoa zela egiaztatu zuen César González Sainz Paleolitoko artean adituak (Kantabriako Unibertsitatea). Une horretatik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarea Zerbitzuaren babesean, karst sistemaren hondatze maila ezagutzeko eta sistema hori ahal den neurrian lehengoratzeko hainbat esku hartze burutzeko eta ikerketa arkeologiko bat gauzatzeko proiektua jarri da abian.

La cueva de Armintxe se localiza bajo el casco urbano de Lekeitio, en la falda sur de la loma de Arbiatx, sobre un substrato litológico de calizas del Cretácico inferior. El acceso a la cavidad se hace en la actualidad a través de un conducto artificial abierto a raíz de los trabajos de urbanización de los barrios de Larrotegi y Letraukua. Precisamente, la entrada original de la cueva, catalogada por el GEV como cueva de Armitxe I (VI-796) (Nolte 1968, 168; GEV 1985, 166)¹⁵³, fue tapada de forma intencional durante dichas obras de urbanización en la segunda mitad del siglo XX. Algunas actuaciones realizadas en aquel momento han provocado la inundación periódica de los niveles inferior e intermedio de Armintxe en las últimas décadas, afectando al entorno cárstico y condicionando la exploración e investigación.

El 1 de mayo de 2016, el Grupo de Espeleología ADES planifica una desobstrucción de la cueva, logrando acceder a la cavidad y localizando el panel principal de grabados. En esa jornada de exploración participan asimismo miembros de AGIRI Arkeologia Elkartea. El hallazgo se comunica al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia el mismo 1 de mayo y el cierre de la cavidad se hace efectivo, por parte del Ayuntamiento de Lekeitio, a primeros de junio de este mismo año (mientras tanto la cueva se volvió a taponar con los sedimentos y bloques extraídos). Finalmente, el 11 de junio de 2016, se verifica la cronología magdalenense del conjunto parietal por parte del especialista en arte paleolítico César González Sainz (Universidad de Cantabria). A partir de ese momento, y con el patrocinio del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, se ha iniciado un proyecto de investigación arqueológica y varias actuaciones orientadas a conocer el grado de deterioro del sistema kárstico y revertir en lo posible la situación.

¹⁵³ Nolte eta Aramburu, E. (1968): *Catálogo de simas y cuevas de la provincia de Vizcaya*. Bilbao. Bizkaiko Espeleologi Taldea (1985): *Catálogo de cuevas de Vizcaya*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo 1985.

¹⁵³ Nolte y Aramburu, E. (1968): *Catálogo de simas y cuevas de la provincia de Vizcaya*. Bilbao. Grupo Espeleológico Vizcaíno (1985): *Catálogo de cuevas de Vizcaya*. Diputación Foral de Vizcaya. Bilbao 1985.

Armintxe haitzuloko Madeleine aldiko labar artearen aurreko I ehen balorazioa

Armintxe haitzuluan orain arte ikusi ditugun grabatu gehien-gehienak haitzuloko horma atal garaienetan daude, ongi babestuta, baina erdiko mailetan dauden irudi gutxi batzuk kaltetuta gertatu dira uholde uren eraginez. Hiru eremu nagusitan daude banatuta labar artera biltzen diren grabatuak:

- 1) konposizio handia, gutxienez 25 animalia irudiekin, zeinu abstraktuekin (makila formakoak eta lau aldekoa) eta lerro paraleloetan egokitutako uhin formako sortekin (edo meandroak) osatua. Irudi horiek guztiak haitzuloren eskuinaldea eta bertako sabaia biltzen dituen horma atalean daude bilduta, ustezko jatorrizko sarreratik gutxi gorabehera 62 metrora dagoen gune goratu batean. Konposizioa ikusgarria da oso irudiak ugari direlako eta grabatuak urrutitik ere ikusten direlako. Aipatzekoa da irudi horien antolaera itxura batean kanonikoa, bisonte eta zaldi irudi handiekin batean multzoa osatzen duten beste irudi edo zeinu txikiagoak daudela. Era berean, aipagarria da marka horien artean makila formako zeinuak, piriniotar motakoak (zeinuak paraleloan egokitu-ta), eta katuaren familiako bi animalia irudi egotea, azken horiek guztiz bereziak baitira lurralde honetako magdaleniar artean.

Valoración preliminar del conjunto parietal magdalenense de la cueva de Armintxe

La mayor parte de los grabados reconocidos hasta el presente en la cueva de Armintxe se localizan en los lienzos más altos de la cavidad, bien preservados, pero alguna figura de los niveles intermedios ha sido afectada por las crecidas. Los grabados parietales se distribuyen en tres áreas principales:

- 1) una gran composición, con al menos 25 representaciones de animales, signos abstractos (claviformes y cuadrilátero), y series onduladas de líneas paralelas (o meandros) sobre un lienzo expandido que agrupa el lado derecho de la cueva y el techo inmediato, en una zona elevada situada a unos 62 m de la probable boca original. La composición es de una gran espectacularidad por el amplio número de figuras implicadas y la visibilidad de los grabados a distancia. Destaca su organización aparentemente canónica, con figuras de bisonte y caballo de mayor dimensión y otras figuras o signos más pequeños complementando el grupo. De igual forma, la presencia entre los signos de una serie de claviformes de tipo pirenaico en paralelo, o de un par de representaciones de felinos, un tema inusual en el arte magdalenense regional.



Armintxe haitzuloko eskuinaldeko hormako eta bertako sabaiko panel nagusian grabatutako animalia irudien eta zeinuen krokisa eta behin-behineko zenbakera. Marra zabal eta etenak uhin formako zerrendei (meandroak)ozkie, 3-5 lerro paralelotan daude antolatua eta aldi berean eginak dira (argazkia: ADES).

Croquis y numeración provisional de las figuras de animales y signos grabados en el panel principal de Armintxe, sobre la pared derecha y techo inmediato. Las líneas anchas y discontinuas corresponden a las bandas onduladas (meandros) con 3-5 líneas paralelas y realizadas al tiempo (fotografía de base: ADES).

- 2) konposizio nagusitik 8 metrora dagoen korridore goratu baten eskuinaldeko horman irudi multzo bat ikus daiteke, batez ere zaldiak dira, baina badira makila formako beste zeinu batzuk (panel nagusian identifikatutakoak ez bezalakoak).
- 3) haitzuloan barrurago, erdiko mailan, elkarrengandik bereizitako hainbat irudi sorta daude, zaldiak eta lauoineko zehaztugabeak bereizten dira, eskuarki bakartuta edo bikotetan, orain arte ikusitakoaren arabera.

Animalien, zeinuen eta beste motibo ez figuratiboen artean gutxi gorabehera berrogeita hamar irudi bereizi ditugu orain arte. Gutxienez 18 zaldi daude, ahuntzaren familiako 5 animalia (bik *Capra pyrenaica* espezieari berezkoak zaizkion adarrekin hornituta daudela), 3 bisonte, katuaren familiako bi animalia (haitako bat lehoia da, zut du isatsa eta borla zirkularra du gainean) eta 56 lauoineko zehaztugabe. Gainera ugari dira marra solteen eta uhin formako zerrenden serieak, marra paraleloekin, batera eginak, segur asko eskuko hatzekin. Zeinuen artean aipagarri dira paraleloan egokitutako makila formako bi sorta eta lau aldeko bat (Kantabria aldean identifikatutakoak ez bezalakoak).

Irudi horiek grabatzeko bi prozedura bereizten dira. Lehenengoa, ongi ezagutzen dena, dekalzifikazio buztinetan esku bateko hatzekin egindako meandroak dira, trazu kurbatuak edo uhin formakoak lerro paraleloetan egokituta. Aitzitik, objektu gogorrago bat (organikoa edo harritzkoa) erabilia daude grabatuta animaliak eta zeinuak, eta objektu gogorrago horrek altxatu txikiak (eta ez alde zehatzak eta paraleloak dauzkaten ildaxka erregularrak)) sorrarazi ditu, ukitu gabeko arrokaren kolore argiagoa agerian utzirik. Soritutako marrek zabalak dira hein batean, eta horrek iradokitzen du euskarri egonkorragoetan egindako grabatu bakunak dauzkaten beste labar multzoetan dokumentatzen diren irudien neurria gaintzen dutela hemengoek. Konposizioaren ikusgarritasuna ere ohi baino hobea da.

Irudi hauek irudikatzen diren ereduak, eskuarki ongi ezagutzen baitira Madeleine aldiko beste haitzuloetan eta arte higigarrian, eta bereizgarri ikonografiko batzuek (fauna konposizio bat eta bera, orein ar eta emeen absentsia deigarria barne, eta bertako zeinu abstraktuak) aukera ematen digute multzo hau azken Madeleine aldiaren kokatzeko (14.500-11.700 BP), behar bada aldi horretako denbora tarte aspaldikoenean. Aldi berean, multzoaren homogeneotasun estilistikoak, teknikoak eta konposizioaren koherentziak iradokitzen dute labar artearen sorta sinkronikoa dela, edo irudiak denbora tarte labur batean eginak direla (Santimamiñen eta Ekain bezala, eta ez El Castillo eta Tito Bustillo haitzuloetan bezala).

Armintxe haitzuloak, oso gertu dagoen Atxurra eta Lumentxa eta Goikolau kobazuloetako magdaleniar kronologiako irudi xumeagoek, Goi Paleolitoaren azken aldiko labar artearen multzo guztiz interesgarria osatzen dute Lea ibaiaren behe arroan. Multzo hori bizitegi gisa baliatu zuten aztarnategi batzuekin osatzen da (bestek beste, Santa Katalina, Abittaga, Armiña, Lamina eta beste haitzulo batzuekin). Azkenik, Armintxe haitzuloko labar artearen bereizgarriek, txosten honetan labur-labur azalduak, berretsi egiten dute Kantauri aldeko Goi Paleolitoko une

- 2) un corredor elevado situado a solo 8 m de la composición principal, ofrece, sobre su pared derecha, una agrupación de figuras sobre todo de caballos, con una nueva serie de signos claviformes (en una versión distinta a la del panel principal).

- 3) otra zona algo más interior de la cueva, dentro del nivel intermedio, cuenta con varios lienzos separados entre sí, con representaciones de caballos o de cuadrúpedos indeterminados, por lo general aislados o en parejas, en lo visto hasta el presente.

En total, se ha reconocido una cincuenta de representaciones, sean animales, signos u otros motivos no figurativos. Hay al menos 18 caballos, 5 caprinos (en dos casos, con cuernos característicos de *Capra pyrenaica*), 3 bisontes, 2 felinos (uno de ellos, un león de cola levantada y rematada en una borla circular) y 6 cuadrúpedos indeterminados. Además hay abundantes series de líneas sueltas, y de bandas de delineación ondulada, con líneas paralelas y realizadas de una vez, seguramente con los dedos de la mano. Entre los signos, dos series de signos claviformes en paralelo, y un cuadrilátero (aunque distinto a los de tradición cantábrica).

Se aprecian dos procedimientos de grabado. El primero, bien conocido, afecta a los meandros realizados con los dedos de una mano sobre arcilla de decalcificación blanda, definiendo series de líneas paralelas de delineación curva u ondulada. Por el contrario, los animales y signos han sido grabados arrastrando un objeto más duro (orgánico o lítico), que, en ese tipo de pared, genera una sucesión de microdesconches (y no surcos regulares de lados nítidos y paralelos), revelando el color más claro de la roca no alterada. Las líneas resultantes son relativamente anchas, lo que se vincula con una dimensión de las figuras algo mayor a la usual en otros conjuntos parietales con grabados simples sobre soporte más estable. La visibilidad de la composición es también superior a lo usual.

Las convenciones de representación presentes, en general bien conocidas en otras cuevas y en el arte portátil de edad magdaleniense, y algunos rasgos iconográficos (la misma composición faunística, incluida una llamativa ausencia de figuras de ciervas y ciervos, o los signos abstractos presentes), permiten la atribución del conjunto al Magdaleniense reciente (14.500-11.700 BP), quizá algo más probablemente un horizonte antiguo dentro de ese lapso. A su vez, la homogeneidad estilística, técnica, y la coherencia de la composición sugieren que se trata de un conjunto parietal sincrónico, o realizado en un lapso temporal corto (como Santimamiñe o Ekain, y a diferencia de El Castillo o Tito Bustillo).

Armintxe, además de la cueva muy cercana de Atxurra o las manifestaciones más discretas de cronología magdaleniense de Lumentxa y Goikolau, conforman una nueva agrupación de centros parietales de finales del Paleolítico superior en la cuenca baja del río Lea del mayor interés. La agrupación se completa con algunos yacimientos de habitación (cuevas de Santa Catalina, Abittaga, Armiña, Laminak... entre otras). Finalmente, los rasgos del arte parietal de Armintxe, examinados aquí sumariamente, ratifican la idea base de los estudios sobre la actividad gráfica en los compases más avanzados del Paleolítico su-



Armintxe haitzuloko grabatuen panel nagusiaren erdialdea. Gutxienez bi ahuntz, zaldiak, bisonteak eta katuaren familiako beste bi animalia bereizten dira, eta behean eta eskuinaldean makilaren formako zeinu sorta bat.

Área central del panel principal de grabados de Armintxe. Se aprecian al menos, sendas figuras de cabra, de caballos, bisontes y dos felinos, además de una serie de claviformes, abajo y a la derecha.

aurreratuenetako jarduera grafikoari buruzko azterlanen oinarritzko ideia: izan ere, orain dela 14.500 urtetik aurrera, estutu egin ziren Pirinioetako iparraldeko herriekiko harremanak eta elkarrekintza kulturalak gaur egun urpean eta Lea ibai ondoko aztarnategi sorta honen iparraldean dagoen ekialdetik mendebalderako korridorearen bidez.

perior en la región Cantábrica: la intensificación de la interacción cultural con las poblaciones al norte del Pirineo francés durante ese periodo que se abre a partir de 14.500 años, alimentada a través del corredor E-W, hoy sumergido, situado inmediatamente al norte de esta agrupación de yacimientos del río Lea.

Armintxe haitzuloko zoruaren ebaluazio arkeologikoa

Armintxe haitzuloko zoruak arkeologikoki ebaluatzeko programari hasiera emateko, sistematikoki maitu dugu gainazala, baina oraingoz ez dugu Paleolitoko jardueraren zantzu bat bera ere antzeman. Jarraian zundaketa estratigrafiko batzuk eraman ditugu burura honako gune hauetan:

- 1) haitzuloko jatorrizko sarrerako ezkaratzean (urbanizazioak zigilatua); segur asko Madeleine aldiko artistek erabili zuten sarrera da. Gune honetako estratigrafiaren balorazioa ezkaratzeko alderik barruenera mugatu genuen, sarrera eta ezkaratzaren zatirik handiena guztiz itsututa baitituzte obratik etorritako zaborrek.
- 2) I. sektoreko (behin-behineko zenbakera) edo lehoien eta makila formako zeinuen paneleko zoruak. Zoru hori, ukitu gabe baitago, buztinezko eta dekantatutako limozko geruza batez estalita dago. Zundaketa txiki batzuk (30 cm-ko aldearekin) egin ditugu gela honetako zutabe estratigrafiko batzuk lortzeko xedean.

Evaluación arqueológica de los suelos de la cueva de Armintxe

El programa de evaluación arqueológica de los suelos de la cueva de Armintxe ha comenzado con una prospección sistemática de superficie, en la cual, hasta el momento, no se ha detectado ningún rastro de actividad paleolítica. Seguidamente, hemos puesto en marcha una campaña de sondeos estratigráficos, actuación que abarca las siguientes zonas:

- 1) el vestíbulo de la boca original de la cueva (sellada por la urbanización), que posiblemente se corresponde con el acceso que utilizaron los artistas magdalenenses. La valoración estratigráfica de esta zona se ciñe a la parte más interior del vestíbulo, puesto que el portal y la mayor parte del vestíbulo se encuentran absolutamente cegados por los escombros de obra.
- 2) el suelo del sector I (numeración provisional) o panel de los leones y claviformes. Este suelo, prácticamente intacto, aparece recubierto por una capa de arcillas y limos de decantación. Se está trabajando en pequeños sondeos (de 30 cm de lado) de cara a obtener varias columnas estratigráficas de la sala.

- 3) II. sektoreko (behin-behineko zenbakera) edo konposizio nagusitik 8 metrora dagoen korridoreko zoruan. Zundaketen estrategia bat dator I. sektoreari begira egindako proposamenarekin.

Bestalde, haitzulo honetan jada abian diren azterlanei begira, lan arau batzuk finkatu dira arte adierazpenak eta balizko beste lekukotasun arkeologikoak behar bezala kontserbatuko direla bermatzeko¹⁵⁴:

- haitzuloko sektore dekoratuetan lanaldiak eta egonaldiak murriztea. Printzipioz 4 orduko lanaldia finkatu da.
- haitzuloko gune horietan ikertzaileen kopurua mugatzea (gehienez ere 3 lagun).
- ibiltzeko guneak balizez mugatzea, bereziki gune arkeologikoetan.
- dekoratutako guneetara arropa eta oinetako garbiekin iristea (polipropilenozko buzoak, behin erabili eta botatzekoak eta zola lauko eskarpinak).

- 3) el suelo del sector II (numeración provisional) o corredor situado a 8 m de la composición principal. La estrategia de los sondeos es acorde a la propuesta para el sector I.

Por otra parte, y de cara a los diferentes estudios que están ya en curso en la cueva, se han establecido unas pautas de trabajo para garantizar la conservación de las manifestaciones artísticas y otros testimonios arqueológicos potenciales¹⁵⁴:

- reducir los tiempos de trabajo y estancia en los sectores decorados de la cueva. En principio, se ha estimado la jornada de 4 horas de duración.
- limitar el número de investigadores en esas zonas de la cueva (3 personas).
- balizar las zonas de tránsito, especialmente en las áreas arqueológicas.
- acceder a las zonas decoradas con vestimenta y calzado limpio (buzos desechables de polipropileno y escarpines de suela lisa).

C. González Sainz; J.C. López Quintana

B.16.2.2. **Garraitz edo San Nikolas uhartea**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Diru-laguntza emaila: Atabaka Kultur
Alkartea; Lekeitioko Udala;
Bizkaiko Foru Aldundia

B.16.2.2. **Isla de Garraitz-San Nicolás**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Subvención: Atabaka Kultur Elkarte;
Ayuntamiento de Lekeitio;
Diputación Foral de Bizkaia

Garraitz (San Nicolás) Island is a small islet (6.5 ha) located in Lekeitio Bay. It contains three different sites: in site A stands the Chapel (mentioned in documents from the 14th century); and in sites C and N are the remains of fortifications from different eras (built during the 18th and 19th centuries). The archaeological work carried out has defined part of the structures related to the old chapel and the fortifications located near the summit.

Esku hartze honetan neurri ezberdinetako hainbat zundaketa eraman ditugu burura. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

2016. urtean segida eman diegu iaz Lekeitioko badiako Garraitz edo San Nikolas irlaren inguruan abiarazitako lan arkeologikoei. 2015eko ekinaldian funtsean garbitu eta landareak atera genituen ingurutik, eta topografiatu eta dokumentatu egin genituen bertako elementuak oro. Espazioaren eta funtzionaltasunaren ikuspegitik ongi asko bereziten diren hiru ingurunek osatuta dago multzo hau:

- 1000. eremua. Irlaren hegoaldeko muturrean, San Nikolas basiliza zaharraren hondakinek (XIV. mende amaieran aipatua eta XVIII. mende amaieran eraitsia) eta alde horretan aldi baterako (1617-1659) antolatutako komentuak osatua.

Intervención desarrollada mediante la ejecución de varios sondeos de diferentes proporciones. Siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

En el año 2016 se han proseguido los trabajos arqueológicos iniciados en el año pasado en el entorno de la isla de Garraitz o San Nicolás en la bahía de Lekeitio. Durante la campaña precedente la actuación consistió básicamente en las labores de limpieza y retirada de vegetación, así como de topografiado y documentación de los distintos elementos existentes. El conjunto está formado básicamente por tres entornos perfectamente diferenciados espacial y funcionalmente:

- Área 1000. Se corresponde con el extremo sur de la isla y el conjunto está conformado por las ruinas de la antigua Ermita de San Nicolás (mencionada a fines del siglo XIV y demolida a fines del XVIII), y del convento provisionalmente habilitado en la zona (1617-1650).

¹⁵⁴ Sistemátika horrek hein batean J.L. Sanchidrián Tortiren proposamena du ardatz («La prospección de las cuevas con arte prehistórico»), «Redescubriendo el arte parietal paleolítico: últimas novedades sobre los métodos y las técnicas de investigación», Bilbo 2016ko urriaren 20an eta 21ean izandako workshopen azaldu zuen.

¹⁵⁴ Dicha sistemática se nutre, en parte, de la propuesta de J.L. Sanchidrián Torti («La prospección de las cuevas con arte prehistórico»), expuesta en el workshop «Redescubriendo el arte parietal paleolítico: últimas novedades sobre los métodos y las técnicas de investigación», celebrado en Bilbao los días 20 y 21 de octubre de 2016.